

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bitoria Aboitiz Atxabal Artxanda

*Lekeitio
Bizkaia (1931)*

Aurkibidea



Biografia



Aita Lekeitioko arrantzalea zen eta ama Ispasterko baserritarra. Bitoria Ispasterren jaio zen, aita itsasoan zegoela, baina Lekeitioko moilan hazi eta bizi izan zen lau neba-arrebako familia batean. Hamar urterekin eskola utzi eta saregin lanean hasi zen. Lekeitoko [Salbador Anakabe](#)rekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen.

Zintak

LEK-051

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Data:** 2011-04-28
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Gerra Zibila hasi zenean

- **Erref:** LEK-051/003
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean bost urte zituen Bitoriak; hala ere, ondo gogoan ditu orduan bizitakoak. Baporean sartu ziren alde egiteko asmoarekin, baina azkenean etxera bueltatu ziren. Erasoak hasten zirenean, zubiko kobazuloan ezkutatzen ziren. Jende asko batzen zen bertan. Moilan mairuak ikusi zituela gu gogoan. Beheko botika ondoan zegoen bodegoi baten antzerakoa zen Mataklan. Eta askotan umeak bertan batzen ziren gurasoak beste zeregin batzuetan zebiltzan bitartean.</p>

Transkripzioa

- Gerria hasi zanian umi ziñian?
- Bost urte, bai.
- Ta gomutaten dozu zeozer?
- Honbre, eitten [doten]. Badakit desaloja giñina, plantxia euan ontxe

Isuntzak zelan saltzen dittuz harek, kamisetak eta? Han aurrin plantxia euan. Zeuri be akordako jatzu, gaizti zara baiña... Ba hantxe, sartu giñian `Rosario´ baporian, ta urten genduan kanpora. Aillega giñinian farolera, barrun euan bat hasi zan: "Enee, auntxe botako gaittuez hondora! Ene, ene! Buelta en biher do! Hamen dator, hori dator, `Cervera´ barku dator". Ta, klaro, guk argidxak ikusten genduzan, baiña guk ez zekigun holako konturik. Ta buelta ein genduan, e? Buelta. Eta gero gu etxin geratu giñian. On ez dakittena da bera bapora atza jun bazan edo ez bazan. Neuk dakit buelta ein genduana.

- Ta ze, abioik eta bonbardeuk eta ikusi, sentidu zenduzan edo?

- Bai, bai, eske han kueban eoten giñin gu, zubiko kueban. Hantxe ein jateku ta. Ama-ta juten zirian hara ta hona ta jatekua lograten, ta gu hantxe umiak, hantxe kueban. Eta asko, e? Gure modura asko eoten giñian.

- Aja, ta zelan entera ziñin gerria hasi zala?

- Gerria hasi zana gu entera ez giñin ein, ikusi ein genduan mobimentua ta aringa-aringi ta. Gero, niri esan osten italianuk zirina, baiña nik neuk pentsaten neban moruk ikusi genduzela moillan, moruk jesarritta moillan. Hantxe kafe Marina ta daozen hantxe. Ta badakizu jentia, batak haratz ta beste batzuk honutz ta badakizu ordun ein ebezena, "los que podían y eso ya hicieron cosas", baiña gu, ba, badakizu, ontxe lantxerik. On be zelan gaoz? Bardin!

- Ta zutzako zelakuk izan zirin harek urtiak?

- Ba harek urtik... umik izan giñian. Ama-ta juten zirian, esan dotsut, ba horra edo hona ta umiak egoten giñian, ba, umiak eta. Ez dakit zuri akordaten bajatzu "Mataklan" nun eon zan. Beheko botikin aurrian eon zan "Mataklan", e... hori.. e... holantxerik, Bodegoi izati lantxerik eta. Ta horren jaubiak, horren euren jaubiak be umik-eta eukezen, ta izten gaittuzen hantxen igual hamar ume ta hamabi ume ta gure amak eta. Ta eurak juten [...] jatekun bila hara edo hona edo, ta hantxe egoten giñien e... Ta gero, ba, juten giñin etxera amagaz-ta, ta holantxerik zan.

2. Itsasontziei euskal izena kendu espainiarra jartzeko

- **Erref:** LEK-051/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota

Laburpena:

<p>Gerra garaian bapore asko zeuden herrian. Beraien aitak ere beste asko bezala, alde egin zuen. 'Aberri Eguna' zuen izena beraien aitaren ontziak eta 'Navarra' jarrazti zioten. 'Euzkadi' izenekoari, oster, 'España'.</p>

3. Gerran janari faltarik ez

- **Erref:** LEK-051/006
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Beraiek ez zuten jateko arazorik izan gerra garaian; izan ere, beraien ama baserritarra zen eta handik ekartzen zuten patata, esnea... Gainera, ez ziren luzaroan egon ezkutatuta eta ez zuten inolako faltarik igarri.

4. Eskolak garrantzi gutxi

- **Erref:** LEK-051/009
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Hamar urtera arte joan zen eskolara. Pando egin (piper egin) arren, etxean ez zuten jakiten eta ez zen ezer pasatzen.

5. Aita bakarrik joan zen ebakuatuta

- **Erref:** LEK-051/011
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra garaian, beste askok egiten zuten legez, bere aitak ere baporea hartu ere alde egin zuen. Ontziak 'Aberri Eguna' izena zuen eta horrek sortutako ikarak eraginda, bakarrik joan zen.</p>

6. Umetako beharrak

- **Erref:** LEK-051/014
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:11:31. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Gazterik hasi zen beharrean, bederatzi edo hamar urte zituela. Lehorreko lanak izaten ziren beraiek egiten zituztenak.

7. Sare konponketan

- **Erref:** LEK-051/018
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:15:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

<p>Sare konpontzaile bezala, bapore batetik bestera ibiltzen zen lanean. Trainak egiten zituztenean, bukaeran kobratzen zuten, baina kanpoko baporeetako konponketak egunean egunekoa kobratzen zuten. Lastozko jesarlekuen gainean, behean gainean jesarrita, aritzen ziren; baita nahiz eta umea izateko egon.</p>

Transkripzioa

- Ba nire biharra egun guztian kalia. Sare egiñen. Eta gero bapora guztietara be juten nitzan sare egiñen. Kanpotarrak-eta etorten zirian: Laredo, Castro ta San Juan de La Arenakuak...eta dana egoten zan beteta. Klaro, esaten eban guztietara, baporitara, ba baporik bapor juten ziñin konponduten.

- Ta bihar gogorra zan?

- Bueno, ba, horixe eitten gendun ta, ba, zer esango dotsut, ba? Gero, traiñak-eta eitten genduzanian, hasi ta amaittu eitten genduan, ba, igual, ba, ez dakit ba zenbat egun ta eingo genduzan, amaittuten zanian kobraten zan traiñak-eta. Bestelan, ba, juten ziñian kanpotarrakana ta eunekua-ta emoten eben eskura, ta, ba, pozik.

- Gorputza asko kantsaten jatzuen edo gogorra zan?

- Ez dakitt zerik esan be. Guk igarri be ez, kontixu. Igarri be ez, kontixu, kantsaten bagiñian be. Baiña, holako, zuk imajina jaidxoteko besteko enbarazua ta behian ganian egoten giñian gu sare eiñen. Zelan horrek sillak eukitten dabez, ganeko lastozko gania, sillak lastu eukitten dabena? Halakoixe lastozkuen ganian, behian ganian ipini, ta hantxen, behian ganian eitten gendun sare egiñen.

- Orduan komodo-komodua ez zan ixango hori?

- Bapez! Imaginaixu, berrogeta hamar urte, on berrogeta hamar urte-edo ixan zan koronaziñoia Lekitton, Ama Birgiñiena, ta neukazan nik bost mutil, ta neuan itxoten seigarrenari. Ta esaten eusten: “Bitoria, Ama Birgiñien koronaziñoia da, ta hauxen ixango dozu neskia; Hau bai e!” Paso ein genduan. Berrogeta hamar urtekua daukat; Ameriketan bizi da, zetzalaridxa, badakixu. Ta gero euki neban neskia. Esan neban: tira, behin edo behin, “algo es algo”. Hainbeste mutilleaz mereziduten neban neskatxu bat, ezta? Ta horixe.

8. Ezin erretirorik kobratu

- **Erref:** LEK-051/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Nahiz eta urte askoan egin behar ez du erretirorik kobratzen. Senarraren erretiroari esker bizi dira.</p>

Transkripzioa

- Jubila? Jubila, zetako jubila? Nik ez dot kobraten sobirik be ta. Makiña bat urte egin neban biharra baiña. Neure gixonak be esan eutsun hori, ezta? Ze Salbadorrek esan eustan niri hori ta. Esan neutsan, ze eske neuri be esango nabe baiña, sekula ez dot kobra dirurik; pezeta bat be ez. Horretxegaittik, kontixu, Jangoikuak emon nau gixona urte askun bizittek jubilaziñoiaz, bestelan ia aber ze ein bihar genduan; "Es así!". Filetian, hor, burua kentzen, enpakaten, moillara, gero barruna, eta gero hartzen ebenian antxobia be, "a la hora que era", gatza emoten, igual goixin-goixetik gabera artian. Holantxik.

- Ondo. Orduan, Bitori, eukiko dozu anekdotaren bat edo istoridxoren bat graziosua edo zeozer kontateko ba? Pasako jatzuzen hainbeste gauza ta.

- Zertzuk gauza? Ze anekdota? Zertzuk, zertzuk? Eukitten gendun astirik be ezetako ala? Arin-aringa! Hoinbeste umeaz, imajinaten zara? Interiña be bai, edonora juten nitzan libre neukan egunian.

9. Galarrenan hildakoak

- **Erref:** LEK-051/022
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Galarrena (enbata) izugarri batek eraginda hainbat itsasgizon desagertu ziren, baita lekeitiarrak ere.</p>

Transkripzioa

Eske geu be talan eon giñian orduan, hil zirian, Lekittarrak be galdu zirian. Ta gero esaten eben, zelan yata bat denbora zantarrak kanporatz ta, kanporatz ta, kanporatz. Ta pentsaten eben jentia, igual, Frantzidixan edo, kontako eutsuen beste nonorek be ta, hamen edo, hor edo egongo zala, baiña lekittar bi hantxe galdu zirian; Likona eta Iñaki. Gero, geure aurrian bizi zan Manuel, Manuel bizi zan geure aurrian; ha be hantxen, Sokorro baporin edo galdu zan ta...nHorrek danok e! Gauza trist... Holako tristiak izan zirian horrek, denpora tristiak.

10. Dei egitekoak

- **Erref:** LEK-051/023
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:19:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Emakumeak aritzen ziren dei egiten: itsasora joan behar zuten gizonak noiz joan behar ziren abisatzen. Hori zelan egiten zuten azaltzen du Bitorak. Lehen bapore asko zeuden Lekeition.</p>

Transkripzioa

- Zelan e... zuek kalietatik eta pasako ziñien, andrak gizonari itsasorako deitzen eta?

- Bai; Hombre! Hoba ez pasa! Behin sasoi bat ezkerro, txokukin orduan juten zirian, egurrezko txokiñak, glin-glan, kalia beherutz juten zirian ta dei eittekuak hoba ez. Ba fulano, neure gixona ixatia lantxerik, "Salbador, gora Jangoikuaren ixenian!" esaten zan, ta gero, mezia entzuteko egunian juten zirinian "gora Jangoikuaren ixenian, mezia entzuteko!" esaten eben ta nahi dabena juten zan mezatara, ontxen lantxerik, ta nahi ez dabena ez.

- Espektakulua izango da, ezta?

- Bai, danak. Ta gero bapore asko euan. Badakixu zenbat bapore egon zan Lekeition? Eskandalua. On moillan horrek danak daozenak einda, klukak eta horrek terrazak-eta horrek danak zirian baporen bodegak orduan. Ta gero, ba, danak libra zirian, danak hutsik. Ba, pentsa, ez eban emoten pisuk be igual abastorik jentia kanpotarra ta egoten zirian, on etxe barriak ein dabezenak Kortabitartek eta San Pedron aurrian, hantxe be pisua egoten zan antxoak-eta kontateko-ta.

11. Bisigu-sasoia polita zen

- **Erref:** LEK-051/024
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:19:58. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

<p>Bisigu-garaia oso polita zelan dio. Lekeition lau ontzi "pasajero" zeuden eta bisiguak zelan ekartzen eta banatzen zituzten kontatzen du. Bere ustez, gaur egungo Lekeitiok ez du herri arrantzalearen itxurarik.</p>

Transkripzioa

Ta gero besiutako denporia be politta ixaten zan, e. Besiutako denporia, gure aittak [euan pasajeru euan]. Lekiton euazan lau pasajero-edo euazan. Baporak etorten zirian besigutatik ta amarratuten zirian kataietan, ta gero juten zirian pasajeruaz gixonak eta besiuk ataraten kanpora. Andrak eruateko buruan, burun eruten ebezen, burun, "fijate" haretzek otzarak, ta badakixu, parientiak-eta zirinak lehenengoko, igual nonor jun hartzen ta: "neuk daukat lehengusua, neuk daukat ez dakit nor". Ta esaten eben, ta preferiduk ixaten zirian haretzek. Gu ta ez, gu gaztiak giñian ta. Baiña, besiutako sasoia... Ta eguerdidxan, egueldi edarra euanian, danak etxetik, ze holako sasoian etorten zirian baporak. Asko zirian lez ta, gauza politt bat zan, on ez daona, ze on ez dauko Lekittok e...On Lekittok badauko mariñeruen herridxen antzik ala? Nik ez dotsat hartzen. Ordun ikusitta, on behiñipehin.

12. "Señeruak"

- **Erref:** LEK-051/025
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

<p>Eguraldi zantarra zegoenean, gauzainek, "señeruak", makila handi bat eroaten zuten arrastaka, itsasorako girorik ez zegoela iragartzeko.</p>

Transkripzioa

- Seiñeruakin eta?
- Hombre, [bai], seiñerukin be, raust-raust juten zirianak, klaro. Eguel di zantarra egoten zanian, eguel di zantarra juten zanian, eoten zanian, pasaten eben holako bastoi handi bat ixatia lantxerik arrastando, arrastando pasaten eben itsasoraterik ez daola esateko. Ha entzuten zanian, ez zeuan.
- Trankilo.
- Trankilo, altzako zirian batzuk-eta igual baiña.

13. Itsasoko lanbideak galzorian

- **Erref:** LEK-051/030
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:28:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Elkarriketa garaian bi arrantza-bapore baino ez zeuden herrian; eta, ondorioz, hainbat lanbide galtzen. Lehen sare-konpontzaileek-eta nahi zuten baporera joateko ahalmena zuten, aukeratzeko adina. Hala ere, ez du nahi bere etxekoentzako lehen zuten bizimodua eta lanbidea.</p>

Transkripzioa

- Ez dao baporik baiña, bi baiño. Bapor bi dao z ta, zer, zer egongo da ba? Lehin asko euazan. Lehin igual, eneee, akordaten jat niri egoten giñiala, haxe kofradidxa, badakixu nun daon, egoten giñiana. Ta etorten zirian patroik-eta sareiñetan-eta ta, baiña igual hain asko ze bata hara jun, horra jun ta itsasora jun bihar eta kontuk eoten zirian. Baiña on ya bapor biaz, bapor biaz, hori negoziuori be ya jun zan. Nik pentsatzen dot Gipuzkun-ta gehitxuo baporak be badaozen lez ta, baiña hamen ez.
- Zuk pentsatzen dozu generaziño gaztik baten batek hartuko dabela errelebua?
- Ezta pentsa be! Eta neure seme bat pe ez ez dot nahi /eztonai/ juterik. Pentsata, beste barik, hamalau urteaz itsasora jun zirila, ta on hamalau urteko umiari "jogurra jangozu? Ez dakitx zer jangozu?" gabiltzaz. Ta hamalau urteaz jun zirila itsasora, hamabost egun-ta atunetan eitten ebezen modura. Koittaduk, hamabost urteaz ta hamalau urteaz ta. Ordun holantxeik zalako. Baiña nik neuk... Niri jun jaten itsasora bat, zaharrena. Bigarrena, urten ebanian eskolatik, Zesarianeko kabanara, Ramon trabajadoreaz, haratxe jun zan biharrian. Hirugarrena eta laugarrena, zestalaridxak, harek Ameriketara jun zirian. Ta bosgarrena Santutxun dao neskiaz.

14. Arrantza herrien gainbehera

- **Erref:** LEK-051/032
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:28:43. **Bukatu:** 00:29:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Gaur egungo Lekeitiok ez dirudi Lekeitio. Baina Lekeitio bezala beste arrantza herriak ere berdin daude.</p>

Transkripzioa

- On baiña baporik eta, horretxek baporok pentsaten dozu denporia eingo dabela? Kalamuan danak dizelako etxeak, patroik, motorista, deitzeku, danak dizelako, baiña, bestelan, pentsa be ez. Horrek ez dabe eingo denporarik. Neutzat, e? Ez dakitt.

- Ta ez dotsu emoten penarik?

- Klaro emoten nabena! Ez dotsut esaten, ba, ez dotela pentsaten Lekitto danik be, ba? Klaro emoten nabena penia, baiña... Ta edonun, e! Zer? Laredo ta Castro, ta San Juan de la Arena, ta horretatik eta danetatik, San Estebanen eta horretan ta danak eguazan baporak, baiña on nun dao? Gipuzku partetik dao daozenak eta, bestelan, ez dao. Geruo gitxio, kontixu.

15. Saregile lana

- **Erref:** LEK-051/035
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:31:27. **Bukatu:** 00:32:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

<p>Saregileek maistra bat zuten. Ikusiz ikasten zuten ez inora joanda ikasten. Zein lan egiten zuten kontatzen digu.</p>

Transkripzioa

- Ba nik ez dakitt ba nok erakutsiko eustan! Ba edonor egoten zan moillan sare eiñan ta igual hantxen ondun ta eonda. Ordun motor txikiñak eta sari mailla bakarrak-eta asko egoten zirin, e. Abadi moillan be motor txiki asko euazan eta danak eukitzen ebezen sariak. Eta eoten giñian igual jente pillo bat sare eiñen ta. Ta ikusi zelan eitten dan ta. Zelan ikasten da, igual, bordaten ta? Josten be zelan ikasten da? botoi bat josten be zelan ikasten da? Ba holantxerik ikasi. Ez behiñipin, jun ta toki batera "ikasten zatoze ta"; holantxerik ikasi genduzan.

- Ta maistriak, orduan, zu eoten ziñian biharrian ta maistriak zer eitten eban?

- Maistriak sarik-eta arma, eurak eitten ebezen; kortxuek eta berunak eta pañu hutsak etorten zirian. Entzun dozu? Eta guk eitten genduzan pañuak goittik eta behera pega, pega, pega. Ta gero eitten jakozen, "bihetza" esaten jakon ha loditsu pasaten zana traiñari, ta gero harek uezaba andrak-eta eurak eitten eben arma ta gauzak eta sarik eta, eurak zirian

eittekua. Guk geuk ez gendun armaten ta ezer, guk konpondu ta igual asko baeuan apurtuta, igual, ba, zatixa bota bihar da /bida/, hau gaitza da eitten ta ebaitten zan kuadrau-kuadrauan ta ipintzen zan ba kuadrau-kuadraua. Begoña Saguntok be esplikako eutsun hori, alkarreaz ibili giñin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com